

## P06 - EMBRYO

Embryo proposamena inplementatzeko orientabideak aurkeztuko zaizkie irakasleei, hiru urteko esperimentazioaren emaitza gisa. Teknologia unitate didaktiko honek, Euskal Herriko eta Europako fabrikazio prozesuak DBHko ikasleei gerturatzeko laguntzen die. Aztergaiak: Embryoaren ezaugarri orokorrak, Unitate didaktikoaren ibilbide esperimentalak, Metodologia kolaboratzaileak. Modu kooperatiboan erronkari ekin, Lan-prozesua: Jarduera didaktikoak, Emaizten album grafikoa, Ingurugiroarekiko konpromisoa

Ikasurtea  
**4. DBH**

Data  
**2024ko maiatzan**

Lantzen diren irakasgaiak  
**Teknologia**

Hizkuntza  
**Euskara**

Irismen geografikoa  
**Araba  
Bizkaia  
Gipuzkoa**

Erakunde sustatzailea  
**Ikastolen Elkartea**

### Zer ikasten dute ikasleek?

Fabrikazio prozesuetan murgiltzea Teknologia arloko dinami- ken bidez:

- DBH4 ikasleak elkarlanean fabrikazio mundura didaktikoki gerturatzeko.
- Digitalizazioa, elektronika eta programazioa ardatz.
- Euskal Herriko fabrikazio industrian murgiltzea.
- Prentsa eraikitzea.

Eraikitako prototipoa doitu dute eskatutako materialen arabe- ra programazio parametroak egokituz. Materialen propietateen baitan, esperimentalki jasotako datu errealean oinarrituta, makinaren parametroak doitu dute erabiltzailearen eskaki- zunei erantzunez.

### Baliabideak

Webinarrerako internetera konektatutako ordenagailua: 2023-2024 ikasturtean irakasleentzako zuzeneko online prestakuntza hau eskainiko da, irakasle-ekipoa proiektuan murgil dadin eta ikastetxean inplementazioaren antolakuntzan laguntzeko.

2024-25 ikasturtetik aurrera, ikasgeletan jarduera garatzeko eskolek Embryo unitate didaktiko digitala eskuratu beharko dute (Ikaslekar bidez).

### Garapena

Irakasleentzako 2 orduko prestakuntza-webinarra eta proiektu- antolakuntzako aholkularitza (2023-2024 ikasturtean).

Unitate didaktiko digitala (2024-2025tik aurrera eskuragarri).

METODOLOGIA  
Zuzeneko online saioa izango da.

### Helburuak

Ondorengo helburuak ditu saioak:

- Lehen aldiz, eredu digitalean, DBH 4ko Teknologia unitate 24-25etik aurrera erabiliko duten irakasleei proiektuaren antolakuntzaren eta jardueraren didaktikoen gaineko azalpenak ematea.
- Euskarri digitalaren erabilerarako aukerak ezagutzeaz gain, unitatearen nondik-norakoak eta ebaluaziorako tresnak azaltzea.

### Curriculumaren edukiak

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza DBH4 teknologia (mekanika, elektronika, robotika, marrazketa, 3D diseinua eta oinarriko estetika). Programazioa: Arduino.

Ekintzailatza, sormena eta berrikuntza teknologikoa. Elkarkidetzak, pentsamendu kritikoa, ikasten ikasi eta komunikazioa.

WEB (Bertsio berria prestatzen)